

Diru Sarrerak

Nola irabaziko dugu dirua?

Lehenik eta behin, enpresa sortzeko mailegu bat eskatuko diogu bankuari, eta hura erabiliko dugu gure proiektua finantzatzeko; mailegu hori 20.000 € izango da, 10 urtetan ordaintzeko. [Mailegua](#)

Horrez gain, gure enpresan, Otaku Zone, hiru metodo izango ditugu gure diru-sarrerak lortzeko:

- Lehenik eta behin, gure denda fisikoaren edo gure webgunearen bidez, bezeroek Japoniatik inportatutako produktuak erosi ahal izango dituzte, hala nola figuratxoak, kamisetak, funkak edo bertako gozoki tipikoak. Lokalean izango dugun kafetegi txikiarekin irabazten dugunaz gain.



- Horrez gain, gure beste diru-sarrera nagusietako bat dendan izango ditugun ordenagailuak alokatzea izango da; ordenagailu horiek bideojokuak jolasteko erabiliko ahal izango dira, batez ere *Fortnite: Battle Royale*, *LOL*, *Valorant* edo *FIFA 22*... betiere emandako materiala kontu handiz tratatzen bada. Horrela ez bada eta gure materiala apropos apurtzen bada, 100€-ko isunak jarriko dira. Ordenagailuak orduka alokatzen dira, eta denda irekitzen denetik ixten diren arte egongo dira

erabilgarri. Ordenagailuen alokairuaren prezioa 1,50 €-koa izango da orduko, baina 4 €-koa, 4 ordukoa edo 6,50 €-koa edo 6 ordukoa eta kontsumiziokoa.

- Azkenik, gure diru-iturri garrantzitsuenetako bat gure enpresarako harpidetza da. Txartel txiki batean jasoko da, eta bertan puntu batzuk gorde ahal izango dira. Puntu horiek gure dendako beste produktu batzuetarako deskontuetan inbertitu ahal izango dira, edo gure gaming ordenagailuetan deskontuak izango dituzte. Puntu horiek erosketa bakoitzarekin lortuko dira gure denda fisikoan edo online. Txartel horiek bi bertsio izango dituzte, lehenengoa gure dendako harpidetza arruntarena izango da, eta 12 euroko prezioa izango du. Txartel horrek, behin eginda, ez du beste ordainketarik beharko. Hala ere, txartel hori premium bertsiora bihurtu ahal izango da, hileko edo urteko premium harpidetza ordainduz. Premium txartela hori 120€ balioko du eta deskontu handiagoak eta ordenagailuak erabiltzeko denbora gehiago emango ditu.



Taula batean azaldu ditugu gure ditu sarreraren aurreikuspena

Zerekin irabaziko dugu dirua	Zenbat irabaziko dugu (Hileko)
Dendan saldutako produktuak	7500€
Ordenagailuen alokailuarekin	6000€
Enpresako txartela	1200€
	Guztira: 14.700€

Gutxi gorabehera enpresaren gure diru-sarrerak grafiko batean azalduta izango diren bezala:

